



Erakusketetarako lan mailegu akordioa

ERAKUSKETAREN IZENBURUA	
INSTITUZIO ESKATZAILEA	
ARDURADUNAREN IZENA ETA HELBIDEA	
GARRAIO- ETA MUNTATZE-ENPRESAK	
INAUGURAZIO ETA AMAIERA LEKUA ETA DATAK	

Erakusketetarako obrak mailegatzea Espainiako Liburutegi Nazional honen funtsak ahalik eta gehien zabaltzen laguntzeko modu bat da. Erakusketetarako mailegu-eskaera ugari jaso ditugunez eta Espainiako Liburutegi Nazionalak betetzen dituen funtzioekin bat etortzeko, mailegatzeko arau hauek ezarri dira:

1. Mailegu-eskaera

BNEaren obrak mailegatzea eskatzeko gutun bat idatziko zaio Espainiako Liburutegi Nazionalari erakusketaren inaugurazio-data baino gutxienez sei hilabete lehenago.

Obra guztiak helburu zientifiko eta teknikoetarako mailegatuko dira eta edonola ere Espainiako Liburutegi Nazionalak obren zaintza-egoera estimatu eta hori mantendu beharko da.

2. Helburua eta edukia

Obrak mailegatzea eskatzerakoan, erakusketa zertarako den eta zer nolako edukia duen zehaztuko duen txosten bat bidaliko da, eta puntu hauek azaldu beharko dira:



1. Erakusketaren arrazoia eta obrak aipatu erakusketan nola barne hartuko diren. Kontuan hartu beharko da ordezkatu ezin diren piezak direnak eta zuzenean erakusketaren gaiarekin lotuta daudenak baino ez direla mailegatuko.

2. Eskatzen diren obra guztien zerrenda, datu hauek barne: Signatura topografikoa

Egilea

Izenburua

Argitaratze- edo inprimatze-lekua, argitaratze- edo inprimatze-urtea eta, eskuizkribuak badira, ekoizpen-lanaren lekua eta data

Bolumenaren zenbakia eta, aldizkako argitalpenak badira, argitaratu zen data zehatza, urtea, hilabetea, eguna eta argitaratze-zenbakia

Neurriak

Obra erakutsi nahi den orrialdea

Marrazkiak, grabatuak eta mapak badira, erabilitako teknika gehituko da

Ezingo dira hogei (20) pieza baino gehiago eskatu. Kopuru hori baino gehiago eskatu nahi izanez gero, kasua aztertuko da kontuan hartuta zergatik duen erakusketak interes berezia edo Espainiako Liburutegi Nazionalako bildumen zer nolako hedapena egiten den. Espainiako Liburutegi Nazionalak eskubidea du erakusketaren kredituetan ager dadin eskatzeko, baldin eta erakusketako obra guztien %50 baino gehiago mailegatzen baditu edo 50 obra baino gehiago mailegatzen badira.

Ez dira eskaerak onartuko obrak guztiz identifikatuta ez badaude.

3. Erakusketaren lekua eta datak. Erakusketaren lekua eta/edo data aldatuz gero, aurrez jakinarazi beharko zaio Espainiako Liburutegi Nazionalari, eta azken horrek aldaketa horiek espresuki onartu beharko ditu.

4. Aretoen ingurumen-baldintzei buruzko txostena eta aretoen planoak, datu hauek barne: hezetasun erlatiboaren balioak eta tenperatura, argi-intentsitatea (luxak) eta areto eta bitrinetan aurreikusi den argiztapenaren ezaugarriak eta beharrezko baldintzak betetzen direla bermatzen duten klimatizazio- eta argiztapen-azpiegituren deskribapena.

5. Segurtasun-baldintzak:

Aretoen ohiko helburua Eraikuntza-materialak Alarma-sistemak

Zaintzarako eta segurtasun fisiko eta elektronikorako gailuak

Aretoaren baldintzak agertzen diren planoak

Aretoaren hezetasun- eta tenperatura-grafikoa



Bitrinen planoak eta ezaugarriak, bitrinen kanpo- eta barne-materialak, eta bereziki, obrekiko kontaktu zuzena duten elementu horiena.

Obrak laga baino lehenago, Espainiako Liburutegi Nazionalak areto eta bitrinen baldintza teknikoak onartu beharko ditu aurrez. Obra jakin batzuen kasuan, duten balioagatik edo dauden egoeragatik, Espainiako Liburutegi Nazionalak bitrinen ezaugarrien inguruan zaintza-baldintza bereziak izatea eska dezake (klimatizazioa, etab.).

6. Ingurumen-, segurtasun- edo bitrina-baldintzak edo obrak erakusteko baldintzak edonola ere aldatuz gero, Espainiako Liburutegi Nazionalari jakinarazi beharko zaio aurrez, eta azken horrek baldintza berriak onartu edo mailegua atzera botatzeko eskubidea izango du.

3. Erakusketen iraupena

Mailegua leku bakar baterako izango da, hots, joan-etorri bakarra onartuko da. Liburuak gehienez 90 egun egon ahal izango dira irekita orrialde beretik. Epe hori amaitzean, orrialdea aldatu beharko da. Orrialde-aldaketa beti Espainiako Liburutegi Nazionalako langile batek egingo du, eta 13. Obra bera ezingo da 180 erakusketa-egun (6 erakusketa-hilabete) efektibo baino gehiago mailegatu urtean. Epe hori amaitzean, obrak ezingo dira 4 urte baino gehiagoz mailegatu. Marrazkiak, XIX. mendeko argazkiak, orri bateko eskuizkribuak eta eskuz egindako mapak gehienez 90 egunetan mailegatu ahalko dira.

4. Zaharberritzea

Espainiako Liburutegi Nazionalak eskubidea izango du obrak zaharberritu behar diren edo ez erabakitzeke, kontuan hartuta zaintza-egoera eta bestelako aspektu zientifiko eta tekniko batzuk.

Liburu, dokumentu, marrazki eta obra grafikoen kasuan, erakunde antolatzaileak esku-hartze gastuak ordainduko ditu BNEak halakorik egin behar dela uste duenean.

Koadro, estatua, altzari eta objektu orokorren kasuan, zaharberritze-gastu guztiak mailegu-hartzaileak ordaindu beharko ditu, baita BNEtik kanpo zaharberritu behar izanez gero egon litezkeen garraio- eta aseguru-gastuak ere.

Kanpo-kontratazio bidez egiten direnean zaharberritze-lanak, BNEak gutxienez hiru eskaintza izatea eskatuko du, posible denean, eta eskubidea izango du ikuspegi teknikitik eskaintza onena zein den erabakitzeke.

Katalogoaren kredituetan egindako zaharberritze-lanei erreferentzia egiten bazaie, Espainiako Liburutegi Nazionalako Zaharberritze Laborategia aipatu beharko da, lanen arduradun gisa.



5. Ministerio Agindua

Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 63.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Espainiako Liburutegi Nazionalako edozein obra instituziotik atera ahal izateko Ministerio Agindu bat beharko da.

Ministerio Aginduan zehaztuko da zein balioa duen mailegatuko den obra bakoitzak, Espainiako Liburutegi Nazionalarekin egindako tasazioa oinarri.

Ministerio Agindua lortu ahal izateko behar den dokumentazio guztia Espainiako Liburutegi Nazionalak eskuartean izan beharko du obra instituziotik irtetea aurreikusi den eguna baino gutxienez hilabete lehenago. Dokumentazio guztia ez badu, ezingo da bermatu obrak irtengo direnik.

6. Esportazio-baimenak. Aduanak

Espainiako lurraldetik kanpo antolatzen diren erakusketetarako piezak aldi baterako esportatu ahal izango dira baldin eta Espainiako Ondare Historikoko Ondasunen Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak hala egitea onartzen badu. Erakusketa antolatzen duen entitatea arduratuko da aduana-izapideak egiteaz.

Esportazio-baimena lortu ahal izateko behar den dokumentazio guztia Espainiako Liburutegi Nazionalak eskuartean izan beharko du obra instituziotik irtetea aurreikusi den eguna edo ezarrita den aurreko data bat baino gutxienez hilabete lehenago. Dokumentazio guztia ez badu, ezingo da bermatu obrak irtengo direnik.

7. Asegurua

Entitate mailegu-hartzaileak arrisku orotarako aseguru-poliza bat kontratatu beharko du ("iltzetik iltzera" deritzona), obrak Espainiako Liburutegi Nazionaletik kanpo dauden bitartean iraungo duena, garraioak barne, eta obra bakoitzaren balio indibiduala zehaztuko da eurotan. Onuraduna beti izango da Espainiako Liburutegi Nazionala eta klausula hauek barne hartu beharko ditu zehatz-mehatz. Klausula hauek gabe, ez du baliorik izango:

Institute Cargo Clauses A (ICCA)

Institute Strikes Clauses, terrorismo-estaldura barne obrak kanpo dauden bitartean

Institute War Clauses

Salbueste-klausula

Balio-galera eta/edo demeritu artistikoen klausula Asmo Txarreko gertaerengatiko kalteen klausula Iraupen-mugarik gabe berrerosteko aukeraren klausula Museo klausula



Frankiziarik gabeko ezbeharren likidazioaren klausula

Osagabetasun klausula

Markoen klausula

Kutsadura erradioaktiboagatiko eskusio klausula

Kristal klausula (hala badagokio)

Entitate antolatzaileak aseguru-egiaztagiria helarazi beharko dio Espainiako Liburutegi Nazionalari piezak hartu baino gutxienez 3 egun lehenago. Espainiatik kanpo antolatzen diren erakusketak badira, aseguru-egiaztagiria obrak BNETik atera baino gutxienez hilabete lehenago helarazi beharko zaio. Edonola ere, obrak ez dira instituziotik aterako Espainiako Liburutegi Nazionalak aipatu egiaztagiririk jaso ez badu. Espainiako Liburutegi Nazionalak eskubidea du entitate antolatzaileak proposatutako aseguru-etxea ez onartzeko.

Mailegu-hartzaileak Estatuaren Berme sistema erabili nahi izanez gero, Espainiako Liburutegi Nazionalaren berriazko baimena beharko du.

8. Paketatzea eta garraioa

Artelanak garraiatzen aditua den enpresa batek paketatuta eta garraiatu beharko ditu obrak. Aipatu enpresak sektorean esperientzia duela egiaztatu ahal izan beharko du eta Espainiako Liburutegi Nazionalak ezarritako zehaztapenen baitan egingo du lan.

Espainiako Liburutegi Nazionalak eskubidea du entitate antolatzaileak proposatutako garraio-enpresa ez onartzeko.

Obrak behar bezala paketatuta egon beharko dira, bai joanean bai etorrian, eta Espainiako Liburutegi Nazionalako langileek gainbegiratuko dituzte paketatze-lanak eta bilgarria kentzeko lanak.

Hezetasunaren, tenperatura-aldaketan, kolpeen eta obrak arriskuan jar ditzaketen edonolako gertaeren aurkako kaxetan garraiatuko dira obra guztiak. Torlojuekin eta babes-zigiluarekin itxiko dira kaxak. Entitate antolatzaileak ordainduko ditu paketatze-lanen eta bilgarria kentzeko lanen kostuak, eta paketatze-materiala Espainiako Liburutegi Nazionalaren jabetza izango da.

Antolatzaileak edo, halakorik bada, garraio-enpresak Espainiako Liburutegi Nazionalari bidaliko dio bidaia-plan bat eta lan-programa bat, zehaztuz zeintzuk diren gaien garraio-, bidaia- eta egonaldi-baldintza guztiak, zeintzuk diren harremanetarako pertsonak eta beharrezkoa den informazio guztia.

Lurrez garraiatzen badira, segurtasun-maila handieneko ibilgailuak erabiliko dira, lapurreten kontra babestuak eta garraioari eta segurtasunari buruzko indarreko araudiari jarraiki artelanak garraiatzeko gaituta.



Airez garraiatzen badira, hegaldi zuzenak hautatuko dira eta, halakorik izan ezean, eskala gutxien eta ibilbide motzena proposatzen dutenak. Obrek edukiontzietan, paletetan edo extra-seat delakoetan bidaiatuko dute.

Oro har, obrek 500.000 € baino gehiago balio dutenean edo Espainiako Liburutegi Nazionalak beharrezkoa dela deritzonenean, segurtasun-agentzia baten zerbitzuak beharko dira garraialdirako, eta entitate antolatzaileak ordaindu beharko ditu.

Obrak paketatzeko eta garraiatzeko data entitate antolatzailearen eta Espainiako Liburutegi Nazionalaren artean adostuko da. Erakusketa-aretorako garraioa Espainiako Liburutegi Nazionaletik zuzenean egingo da, eta ezingo da erakusketaren inaugurazio-data baino 4 egun lehenago egin, Espainiako Liburutegi Nazionalak espresuki baimentzen duenean izan ezik.

9. Erakusketaren ingurune-baldintzak

Erakusketa antolatzen duen entitateak erakusten dituen obren segurtasuna eta zaintza bermatu beharko ditu. Horretarako, zaintza jarraitua egon beharko da eguneko 24 orduetan eta itzaltzeko sistema egokiak egon beharko dira.

Hezetasun- eta tenperatura-balioak zehatz-mehatz mantenduko dira (19º C +/- 1º C eta %40 eta %50eko hezetasun erlatiboaren artean oro har). Halaber, gora beherak ekidingo dira; egunean ezingo dira 1º C ezta %5eko hezetasun erlatiboa baino gehiago aldatu.

Argiztapena zeharkakoa izango da; ez da 50 lux baino gehiagokoa izango paper-euskarriko obretarako, eta 150-200 lux artekoa izango da margolanetarako. Obrak ezingo dira inoiz zuzeneko eguzki-argipean ipini, eta horrenbestez erraz mugi ezin daitezkeen elementuak estali beharko dira, adibidez, leihoak, beirateak, sabai-leihoak edo argi naturalezko beste edonolako iturri.

Espainiako Liburutegi Nazionalak erakusketa baino lehenagoko txostenetan adieraz dezake gomendatutako balioak aldatzeko beharra, baldin eta piezen ezaugarri bereziek hala eskatzen badute.

Obrak bitrina itxietan ipiniko dira, bero-iturrietatik urrun, eta obrak kaltetu ditzaketan edozein elementu puntadun, itsasgarri, urragarri, etab. erabiltzea ekidingo da. Bitrinaren barrualdea eta ipinitako piezaren artean gutxienez 5 cm egongo dira, inoiz ez gutxiago. Obra bat muntatzeko atril bat behar ez denean eta bitrinaren oinarrian bertan jarri ahal bada, kotoiz oihalez, mihisez edo kartoi neutroz estalita egon beharko da oinarria.

Espainiako Liburutegi Nazionalak, beharrezkoa dela uste duenean, hezetasuna eta tenperatura neurtzeko gailuak ipiniko ditu bitrinen barruan.

Espainiako Liburutegi Nazionalak eskubidea du erakusketa-aretoen instalazio- eta segurtasun-baldintzak aztertzeko, une oro tenperatura eta hezetasun grafikoak eskatzeko eta baldintzak egokiak ez direla uste duenean piezak erakusketatik kentzeko.



Erakusketetan zehar, BNEko obrak ezingo dira inolaz ere filmatu eta ezingo zaizkie argazkirik atera, ez partikularrek, ez komunikabideetako profesionalek, edozein helburutarako direla ere, BNEren berariazko baimena ez badute.

10.Obrak muntatzea

Obrak BNEak emandako argibideak jarraituz ipiniko dira. Oro har, liburuak neurrira egindako atrilen gainean ipiniko dira. Atrilak metakrilatozkoak, kontserbazio-kartoiak edo kontserbazio-kartoi arinezkoak izango dira eta irekidura-angelua egoerari buruzko txostenetan agertzen denarekin bat etorriko da. Oro har, ez da 90º-ko angelua baino handiagoa izango, berariaz hala adierazten bada salbu.

Atrilak nolakoak diren eta nola egin diren onartu beharko du Espainiako Liburutegi Nazionalak obrak instituziotik atera baino lehenago. Atrilak diseinatzeko eta egiteko gastuak entitate antolatzaileak ordainduko ditu. Atrilak Espainiako Liburutegi Nazionalaren jabetza izango dira hala eskatuz gero.

Obrak egongo diren bitrinak Espainiako Liburutegi Nazionalak bidalitako langilearen aurrean itxiko dira eta ezingo dira ireki desmuntatu arte, Espainiako Liburutegi Nazionalak horretarako baimena ematen badu izan ezik, baina betiere Liburutegiak izendatutako langilearen aurrean egingo da.

Marrazkiak, mapak, grabatuak, argazkiak, kartelak, txartelak eta orri solteak eta egoki dakizkion beste edozein obra Espainiako Liburutegi Nazionaletik aterako da kartulina neutrozko passe-partout karpitetan muntatuta, metakrilatoz markoztatuta edo, aurrez baimena izanez gero, museo-kalitatezko kristalean edo blindatua, Espainiako Liburutegi Nazionalako teknikariek adierazitako argibideei jarraiki. Markoak Espainiako Liburutegi Nazionalaren jabetza izango dira.

Obrak behin ipintzen direnean, ezingo dira markoetatik kendu, ezingo zaie edonolako manipulaziorik egin eta ezingo dira eraman dauden tokitik beste toki batera arazoia edozein dela ere, baldin eta ez badu baimenik eman Espainiako Liburutegi Nazionalak; eta halakorik egin behar izanez gero, Espainiako Liburutegi Nazionalak izendatutako langile baten aurrean egingo da.

Entitate antolatzailea izango da muntatzearen arduraduna eta horrek dakartzan gastuak ordainduko ditu. Muntatzeko materiala Espainiako Liburutegi Nazionalaren jabetza izango da hala eskatuz gero. Obrak itzultzen direnean, entregatzen diren egunean bertan kendu beharko zaie bilgarria edo, hala egin ezean eta Espainiako Liburutegi Nazionalak aurrez emandako baimenarekin, hurrengo egunean. Markoztatutako obrak markoetatik kendu beharko dira bilgarria kendu bezain pronto, eta entitate antolatzaileak ordaindu beharko ditu horrek dakartzan gastuak.

11.Entrega-aktak

Muntatu ostean, aldi baterako mailegua entrega-akta bat sinatuz egiaztatuko da. Akta hori Espainiako Liburutegi Nazionalak izendatutako langileak eta erakusketaren arduradunak sinatuko dute. Edonolako egoeratan gomendagarria izanez gero, mailegatutako dokumentuak zer nolako



zaintza-egoeran dauden eta zein baldintzatan erakutsi ahal diren zehaztuko da aktan materialaren ezaugarriak kontuan hartuta.

12. Dokumentu eta katalogorako erreprodukzioa

Segurtasun-erreprodukzioak:

Obrak mailegatzeko, BNEk erreprodukzio digital osoa izan behar du – segurtasun-kopia –. Mailegua eskatzen den egunean, piezek ez badute horrelako euskarri alternatiborik, entitate eskatzaileak euskarri berriaren kostuak ordainduko ditu eta indarreko prezio publikoen baitan kalkulatu da prezioa. Euskarri digitala BNEaren jabetza izango da.

BNEak obrak erreproduzitzeari ekingo dio Erreprografia Zerbitzuek bidalitako aurrekontuaren zenbatekoa ordaintzen denean.

Katalogorako erreprodukzioak:

BNEko Argazkilaritza eta Digitalizazio Laborategiek egingo dituzte erreprodukzio guztiak. Katalogoa edo erakusketarekin lotutako bestelako argitalpenak ilustratzeko, bereizmen handiko erreprodukzio digitalak eskatu ahal izango dira kolorean, eta behar bezala identifikatuko dira.

Katalogorako eta erabilera publikorako erreprodukzioek indarreko prezio publikoen arabera balioko dute, eta BNEaren Erreprografia Zerbitzuek bidalitako aurrekontua jasotzean ordainduko da kostua.

Erreprodukzioak ordainagiria jaso ostean bidaliko dira.

Argazkien kredituetan erreprodukzioen jatorria zehaztuko da, hala nola,

Espainiako Liburutegi Nazionalaren Argazkilaritza Laborategia.

Entitate antolatzaileak aurrez kudeatuko du eskatutako funtsen erabilera publikorako behar den baimena, indarreko legearen arabera hala eskatzen bada.

Katalogo bat argitaratzen bada, 5 ale bidali beharko zaizkio Espainiako Liburutegi Nazionalaren

Erakusketen Zerbitzuari.

13. Espainiako Liburutegi Nazionalaren Aipamena

Erakusketako katalogo edo karteletako fitxa edo aipamenetan, honela aipatu beharko da Liburutegia: “Espainiako Liburutegi Nazionala”.



14. Obren segimendurako langilea

Oro har eta halakorik berariaz adierazi ezean, Espainiako Liburutegi Nazionalak, mailegatzen dituen obrekin batera, langileak bidaliko ditu obrak nola garraiatu eta erakusketa-aretoetan nola ipintzen diren gainbegiratzeko. Espainiako Liburutegi Nazionalak langile bat baino gehiago bidaliko du, baldin eta beharrezkoa baderitzo obra-kopuru eta obren garrantziaren arabera. Desplazamendu-gastuak (Espainiako Liburutegi Nazionalak erabakiko du zein garraio-bide erabiliko duen) eta egonaldi-gastuak erakusketa antolatzen duen entitateak ordainduko ditu.

Mantenu-ordainen zenbatekoek ez dute, inolaz ere, legearen arabera, inolako atxikipen fiskalik eragingo eta Estatu Administrazioako Funtzionarioentzako ezarritako tarifen arabekoak izango dira. Mantenu-ordain osoa ordainduko da, irteteko eta/edo iristeko ordua edozein dela ere. Langileak eskudirutan jasoko ditu dietak Espainiako Liburutegi Nazionalatik atera baino lehenago edo erakusketa-aretoan bertan. Mailegu-hartzaileek ordainduko dute ostatua, gosaria barne, gutxienez ***-eko kategoria duen hotel batean (goi-mailako turista), erakusketa-aretoetik gertu. Oro har, langileek 2 egun / gau 1 pasako dute hotel batean Espainian badaude, 3 egun / 2 gau Europa eta Kanarietan eta 6 egun / 5 gau kontinentearteko bidaietan. Espainiako Liburutegi Nazionalak egonaldi luzeagoak eskatu ahal izango ditu mailegatutako pieza-kopuruaren eta horien ezaugarrien arabera. Muntatze-arrazoia direla eta, langilearen egonaldia luzatu behar bada, antolatzaileak ordainduko ditu gastu horiek.

Bidaian eskala bat egin behar bada eta langileak eskuan eraman behar badu obra, garraio-enpresako agente bat egon beharko da desplazamendu horietan gerta litezkeen arazoak konpontzeko laguntza gisa (aduana-izapideak, atzerapenak, bertan behera utzitako hegaldiak, etab.):

Obrak hegazkinezko bidaiarien kabinan langilearekin batera bidaiatzen dutenean, lehen mailako hegaldi-billetea edo antzekoa eman beharko zaio langileari eta eserleku gehigarri bat beharko da maletarako. Era berean, bost ordu baino gehiagoko desplazamenduak egin behar badira, hegazkin-aldaketak eta/edo eskalak barne, Espainiako Liburutegi Nazionalako langileak lehen mailako hegaldian edo antzekoan bidaiatuko du. Aireportuetatik/etarako edo geltokietatik/etarako desplazamenduak, edo langileak bere lana egiteko egin behar dituenak, antolatzaileek ordainduko dituzte eta eskudirutan emango zaio zenbatekoa, aurrez ordainagiriak aurkeztu ondoren.

Entitate antolatzaileak gaixotasun eta istripu aseguru-poliza bat kontratatuko du langilearentzat Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetan egiten diren erakusketetarako.

15. Itzultzea

Erakusketa amaitzen denean, piezak zuzenean itzuliko zaizkio Espainiako Liburutegi Nazionalari gehienez astebetean eta ezingo dira hiru egun baino gehiago iragan erakusketa amaitu eta birpaketatze-lanak egiten direnetik. Inolaz ere, ez da gaindituko Ministerio Aginduan azaltzen den gehienezko epea. Obrak jasotzerakoan, Espainiako Liburutegi Nazionalak itzultitako dokumentuen zaintza-egoera gainbegiratuko du egon litekeen edozein hondatze hautemateko.



Zerbait hautemanez gero, Espainiako Liburutegi Nazionalak eskubidea izango du erantzukizunak eskatzeko.

16. Arauak onartzea

Obrak mailegatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da dokumentu hau behar bezala sinatuta itzultzea Espainiako Liburutegi Nazionalari.

Arau orokor hauek zeintzuk diren jakin badakit eta onartzen ditut, eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen dut. Horretarako, dokumentu hau sinatzen dut.

Sinadura: Entitate antolatzailearen arduraduna